

# MARE CLAUSUM

NORENA DA  
ITSASOA?

À QUI EST  
LA MER ?

WHOSE IS  
THE SEA?

¿DE QUIÉN ES  
EL MAR?

2024/07/05 – 2025/11/02



EUSKAL  
ITSAS  
MUSEOA

MUSEO  
MARÍTIMO  
VASCO



GIPUZKOA  
Kultura

Argazkia/Potografic: Gerdaluis, Gipuzkoako Foru Aldundia

# MARE CLAUSUM: Norena da itsasoa?

Historiaren hasieratik hainbat zibilizazio eta borrokatu izan dira itsasbideen eta itsas baliabideen ustiapenaren gaineko nagusigoa eskuratzeko lehian. Lehia horrek bizi-bizirik jarraitzen du gaur egungo geopolitika- eta ingurumen-arazoetan ere.

Gatazka hauek itsas ondare garrantzitsua sortarazi dute, gaur egunera arte iritsi dena. Erakusketa honek pieza multzo garrantzitsu bat biltzen du, hala nola, itsas guduetan eta koloniar gerretan erabilitako armak eta ikurrak, antzinako jabetza kolonialen mapak, itsasoz harainditik iritsitako objektu exotiko bikainak, nabigazio ozenikoetan funtsezkoak diren ohiko lanabes eta tresnak, eta abar.

Erakusketa honen helburua hausnarketa eragitea da: batetik, “norena da itsasoa?” galderaren atzean dauden eta gaur egunean ere pil-pilean darraiten gai konplexuei buruzkoa eta, bestetik, Europak zazpi mendetan zehar munduko ozeano guztietan barrena buruturiko hedapen eta menderakuntzan Euskal Herriak izandako erantzukizun erabakigarriaren inguruko.





# ERAKUSKETA ARLOA

*Mare Clausum* hitza *Mare Liberum* aurkako latinezko esamolde bat da, eta itsasoa, lurra bezala, subiranotasunaren objektu izan daitekeela aldarrikatzen du. Historiaren hasieratik hainbat zibilizazio borrokatu izan dira itsasbideen eta itsas baliabideen ustiapenaren gaineko nagusigoa eskuratzeko lehian. Lehia horrek bizi-bizirik jarraitzen du gaur egungo geopolitika- eta ingurumen-arazoetan ere.

Erakusketa hainbat arlo tematikotan banatuta dago. Batetik, **beheko solairuan**, itsas bideen eta baliabideen kontrolari buruzko eztabaida historikoak, eta nabigazioari eta itsas baliabideen ustiapenari buruzko desberdintasun legal eta moralak aztertzen dira. Bestetik, **lehenengo solairuan**, Europak zazpi mendetan zehar munduko ozeano guztietan barrena buruturiko hedapen eta menderakuntzan Euskal Herriak izandako erantzukizun erabakigarriaren ingurukoa.

Erakusketaren edukia osatzeko erabili diren balio historiko eta artistiko handia duten pieza sail aipagarri batez gozatu ahalko dute bisitariak. Aukera ederra da, beraz, Antzinaroaz geroztik itsasoaren jabetzaz zibilizazio ezberdinek burutu zituzten norgehiagoken eta Euskal Herriaren arteko harremanen adierazgarriak diren objektuak ezagutzeko, horien artean Gipuzkoan aurkitutako erromatar garaiko pieza esanguratsuak. Hainbat artelan eder ere goraiatzekoak dira, besteak beste, Manuel de Agote getariarraren, euskal esploratzaile eta itsasgizon ilustratu handienetakoa izan zenaren margolanak, hainbat txinatarren irudiak biltzen dituztenak, edo erlijio-urregintzako pieza zoragarri bat, guztiak XVIII. mendekoak.

Orokorrean donostiarrei eta, zehazki, itsas historia unibertsala ezagutzen edo adituak direnei oso erakargarria gertatuko zaizkien hainbat pieza ere aipatzekoak dira: holandarren guda-ontziteria Abrojosko Guduan (Pernambuco, Brasil, 1632) garaitu ondoren Antonio de Oquendo almiranteak Arantzazuko Santutegiari eman eta bertan mendetan zehar gaur arte gordeak egon diren zinopariak.

## 0.SOLAIRUA

### 1.AREA: ITSASOEN JABETZA

Iraganeko itsas eztabaida nagusiak

### 2.AREA: ETENGABEKO EZTABAIDA

Mare Liberum (itsaso askea) vs. Mare Clausum (itsaso mugatua)

## 1. SOLAIRUA

### 3.AREA: EUSKAL ZUBIA

Euskal Herria lehia ozeanikoan



## PROGRAMAZIOA



Erakusketarekin batera, Euskal Itsas Museoak jarduera-programa zabala izango du irailetik aurrera; helduentzat eta familientzat topaketak, bisita gidatuak eta tailerrak eskainiko dira, batik bat. Informazioa Museoaren webguneko agenda atalean jasoko da.

Bestalde, uda honetan "Mare Clausum" erakusketara bisita libreak zein gidatuak eskainiko dira:

### ERAKUSKETARA BISITA GIDATUAK

"Mare Clausum: Norena da itsasoa?" aldi bateko erakusketara bisita gidatua, erreserbapean.

### ERRESERBAPEAN

-  Museoaren irekiara orduan
-  Elebiduna

### ERRESERBAK

Jardueren inguruko informazio guztia Museoaren webgunearen eta sare sozialen bitartez zabalduko dira. Izen-ematea [komunikazioa@itsasmuseoa.eus](mailto:komunikazioa@itsasmuseoa.eus) helbidean eta 943 43 00 51 telefonoan egin daitezke.

### TARIFAK

Museorako sarrera indibiduala: 3 €

Taldeentzako tarifa. 5 lagun edo gehiago: 2 €

Tarifa murriztua. Familia ugarietako kideak, ikasleak, 65 urtetik gorakoak: 1,5€

Tarifa orokorreko kolektibo eta taldeak, (hezkuntza-taldeak izan ezik) eta tarifa murriztua duten pertsonen bisita gidatuak: +1 € pertsonako

### Mare Clausum: Norena da itsasoa?

2024 uztailaren 5etik 2025eko azaroaren 2ra

Asteartetik larunbatera: 10:00-14:00 / 16:00-19:00. Igande eta jaiegunak: 11:00-14:00 / 16:00-19:00

Astelehena itxita

[www.itsasmuseoa.eus](http://www.itsasmuseoa.eus)

## MARE CLAUSUM: ¿De quién es el mar?

Desde los albores de la historia diversas civilizaciones y potencias se disputaron la hegemonía sobre las rutas de navegación y la explotación de los recursos marítimos. Unas disputas que en los conflictos geopolíticos y medioambientales de la actualidad siguen tan candentes como siempre.

Estas luchas han generado un importante patrimonio que ha llegado hasta nuestros días. La exposición reúne un importante conjunto de piezas como armas y pendones procedentes de batallas navales y guerras coloniales, mapas de antiguas posesiones coloniales, suntuosos objetos exóticos, herramientas de uso cotidiano, fundamentales para las navegaciones oceánicas, etc.

Esta muestra pretende generar la reflexión sobre las cuestiones que giran en torno a la pregunta de “¿de quién es el mar?”, que a día de hoy siguen estando latentes, así como sobre la decisiva responsabilidad del País Vasco en siete siglos de expansión y dominación europea a lo largo y ancho de todos los océanos del planeta.







## ÁMBITO EXPOSITIVO

El término *Mare Clausum* es una expresión latina opuesta a *mare liberum* que proclama que el mar, como la tierra, puede ser objeto de apropiación soberana. La exposición relata cómo desde los albores de la historia diversas civilizaciones y potencias se disputaban la hegemonía sobre las rutas de navegación y la explotación de los recursos marítimos.

La exposición se divide en varias áreas temáticas. En **la planta baja** se exploran debates históricos sobre el control de rutas y recursos marítimos y se analizan diferencias legales y morales sobre la navegación y explotación de recursos del mar. En la **primera planta**, se explora el papel histórico del País Vasco como facilitador de comercio internacional y explotación de recursos marítimos, independientemente de soberanías externas.

El discurso de la exposición se complementa mediante un destacado elenco de piezas de gran valor histórico y artístico que los y las visitantes tendrán ocasión de disfrutar. En este sentido, esta muestra constituye una inmejorable oportunidad para conocer objetos vinculados con la relación entre el País Vasco y las luchas por el dominio del mar protagonizadas desde la Antigüedad por distintas civilizaciones, caso de significativas piezas arqueológicas de época romana halladas en Gipuzkoa. Destacan, también, obras de arte de gran relevancia, caso de las pinturas de personajes chinos elaboradas por el getariarra Manuel de Agote, uno de los máximos exploradores y navegantes ilustrados del País Vasco, o de una magnífica pieza de orfebrería religiosa, todas, datadas en el siglo XVIII. Al público donostiarra, en general, y a los especialistas o conocedores de la historia marítima universal, en particular, les atraerá sobremanera los exvotos que el almirante Antonio de Oquendo, que tras alcanzar la victoria sobre la escuadra holandesa en la Batalla de los Abrojos (Pernambuco, Brasil, 1632), depositó en el Santuario de Arantzazu, donde han permanecido depositados durante siglos hasta nuestros días.

### **PLANTA BAJA**

#### *AREA 1: EL DOMINIO DE LOS MARES*

Los grandes debates marítimos del pasado

#### *AREA 2: EL ETERNO DEBATE*

Mare Liberum vs. Mare Clausum

### **PRIMERA PLANTA**

#### *AREA 3: EL PUENTE VASCO*

El País Vasco en las disputas oceánicas



## PROGRAMACIÓN



La muestra viene acompañada de un amplio programa de actividades ideado por el Museo Marítimo Vasco que ofrecerá encuentros, visitas guiadas y talleres para adultos y familias a partir del mes de septiembre. La información se recogerá en el apartado de agenda de la web del Museo.

Además de esto, este verano el Museo ofrecerá actividades como visitas, tanto libres como guiadas, a la exposición:

### VISITAS GUIADAS A LA EXPOSICIÓN

Visitas guiadas a la exposición temporal "Mare Clausum: ¿De quién es el mar?" con reserva previa.

### BAJO DEMANDA

-  En horario de apertura del Museo
-  Bilingüe

### RESERVAS

La inscripción a las actividades será imprescindible a través de la página web del Museo. También se reservarán las plazas escribiendo a [komunikazioa@itsasmuseoa.eus](mailto:komunikazioa@itsasmuseoa.eus) o llamando al teléfono 943 43 00 51.

### TARIFAS

Entrada al museo

- Tarifa individual: 3 €
- Tarifa de grupos. 5 o más personas: 2 €
- Tarifa reducida (Miembros de familias numerosas, estudiantes, mayores de 65 años): 1,5 €

Visitas guiadas: +1 € por persona

### Mare Clausum: ¿De quién es el mar?

Del 5 de julio del 2024 al 2 de noviembre del 2025

De martes a sábado: 10:00-14:00 / 16:00-19:00. Domingos y festivos: 11:00-14:00 / 16:00-19:00

Lunes cerrado.